



23 Memorial Piru Gainza **23. Piru Gainza Memoriala**

Basauri, 2, 3 y 4 de Junio de 2.023
2023ko ekainaren 2an, 3an eta 4an, Basaurin

www.torneopirugainza.com

23. PIRU GAINZA MEMORIALA

ARAUDIA

KADETE kategoriako 6 taldek jokatuko dute, 3 taldetako 2 multzotan banatuta. Partida bakoitzaren ondoren, atera 5 jaurtiketa egiteko txanda izango da, "buruz buru" modalitatean. Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek finala jokatuko dute, eta bigarren sailkatuek 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida. Behin betiko sailkapena zehazteko, puntu-bidezko sistema ezarriko da, hau da, irabazitako partida bakoitzeko hiru puntu, berdindutako partida bakoitzeko puntu bat eta galdutako partida bakoitzeko zero puntu.

1. KASUA:

BI talderen artean berdinketa gertatuz gero bakoitzari dagokion triangeluarrean lortutako puntuei dagokienez, honela ebaziko da berdinketa hori:

- a) Elkarren kontra "buruz buru" egindako jaurtiketen emaitzaren arabera.
- b) Sartutako eta jasotako golen arteko alde handienaren arabera, txapelketa triangeluarrean jokatuako partida guzti-guztiak aintzat hartuta ("buruz burukoak" alde batera utzita). (Gol-average orokorra)
- c) Sartutako gol kopururik handienaren arabera, lehiaketan sartutako guzti-guztiak kontuan hartuta (buruz buruko jaurtiketak ere bai).
- d) Elkarren aurka jokatuako partidetak emaitzaren arabera.
- e) Fair-play-aren arabera (txartel kop.; txartel gorri 1=2 txartel hori)
- f) Golik goiztiarrena sartu duen taldea
- g) Aurreko xedapen horien bitartez ez bada berdinketa ebazten, zozketa egingo da inplikatuako taldeetako ordezkarien aurrean, bietako zein sailkatuko den erabakitzeko.

2. KASUA:

HIRU talderen artean berdinketa gertatuz gero bakoitzari dagokion triangeluarrean lortutako puntuei dagokienez, honela ebaziko da berdinketa hori:

1. Sartutako eta jasotako golen arteko alde handienaren arabera, txapelketa triangeluarrean jokatuako partida guzti-guztiak aintzat hartuta ("buruz burukoak" alde batera utzita). (Gol-average orokorra)
2. Sartutako gol kopururik handienaren arabera, lehiaketan sartutako guzti-guztiak kontuan hartuta (buruz buruko jaurtiketak ere bai).
3. Elkarren aurka jokatuako partidetak emaitzaren arabera.
4. Fair-play-aren arabera (txartel kop.; txartel gorri 1=2 txartel hori)
5. Golik goiztiarrena sartu duen taldea
6. Aurreko xedapen horien bitartez ez bada berdinketa urratzen, zozketa egingo da inplikatuako taldeetako ordezkarien aurrean, 1., 2. eta 3. postuetan zein talde sailkatuko diren erabakitzeko.

OHARRA: Kasu horietan irizpideak aplikatzearen ondorioz, berdinketa hirukoitza berdinketa bikoitz bihurtuko balitz, 1. KASUA aplikatzen hasiko litzateke, hasiera-hasieratik.

“BURUZ BURU”:

Zelai erdiko zirkulu-erditik abiatuko da jokalaria, eta **8 segundo** izango ditu aurrera egin eta gola sartzeko.

Jaurtiketa egin ondoren, EZ DAGO BESTE ERREMATE BAT EGITEKO AUKERARIK atezainak edo atepak (zutoinak edo langak) baloia atzera botaz gero, nahiz eta horretarako denbora geratu.

ATEZAINA area txikian kokatuko da, eta epaileak hala adierazten duenean, egokitzen jotzen duen posiziora aurrera egin ahal izango du, baina betiere bere area handitik irten gabe; baloia gelditzen badu eta ez bada atean sartzen, aurrelariak huts egin duela ulertuko da. Atezainak aurrelariari falta egiten badio, goltzat hartuko da.

Jokalarien zerrenda ematerakoan, “buruz burukoak” zein 5 jokalarik jokatuko dituzten jakinarazi beharko diete entrenatzaileek epaileei, eta horietakoren bat ordeztu egiten badute, ordezko jokalaria jokatuko du “buruz burukoa”.

ALDAKETAK

5 aldaketa egin daitezke 3 txandetan. (atsedenaldiaren osteko aldaketak ez dira txandatzat artuko)

EGUNAK:

Txapelketa 2023ko ekainaren 2an, 3an eta 4an jokatuko da.

JOKALEKUA:

Partidak Basauriko Soloarte Udal Zelaian jokatuko dira; jokalekuan azken belaunaldiko belar artifiziala dago.

PARTIDEN IRAUPENA:

Triangeluarrak, 5. eta 6. postuak: 25 minutuko bi zati, tartean 5 minutuko atsedenaldia eginez, baina jokalariek ezin izango dute jokalekutik kanpora atera (zelai-aldaketa egingo da)

3. eta 4. postuak: 30 minutuko bi zati, 10 minutuko atsedenaldiarekin. Berdinketa gertatuz gero, penaltiak jaurtiko dira talde bat garaile izan arte.

FINALA: 30 minutuko bi zati, 10 minutuko atsedenaldiarekin. Berdinketa gertatuz gero, 10 minutuko luzapen bakar bat jokatuko da; berdinketak irauten badu, penaltiak jaurti beharko dituzte talde bat garaile izan arte.

EPAILEAK:

Bizkaiko Epaileen Elkargoak izendatutako epaileek zuzenduko dituzte partidak, eta Elkargo bereko marrazainak izango dituzte laguntzaile.

TXARTELAK

Talde bateko jokalaria bati txartel horia bi aldiz ateratzen badiote, dagokion partida horretan soilik izango du eragina. Bestela esateko, TXARTEL GORRIA aterako diote eta, beraz, jokalekutik kanpora atera beharko du, baina horrek ez du esan nahi ezin izango duenik hurrengo partida jokatu.

Jokalaria bati TXARTEL GORRIA zuzenean ateratzen badiote partida batean izandako gorabeherengatik, jokalekutik alde egin beharko du. Eta hurrengo partidari jokatzei aukera izango du, baldin eta, ekintza oso larria delako, antolatzaileen batzordeak aukera hori ukatzen ez badio.

JOKALARIEN DOKUMENTAZIOA (FITXAK)

Txapelketan jokatzerako gonbidatutako taldeen kasuan, jokalaria 2007ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitarte jaiotakoak izango dira. (U-16)

Parte hartuko duen talde bakoitzak, partidak hasi aurretik, jokalaria guztien fitxa ofizialak edo, bestela, nortasun agiri originala aurkeztu beharko dizkio antolakuntzari.

Talde bakoitzak guztira hogeita hamar (20) fitxa aurkeztu ahal izango ditu norgehiagoka bakoitzeko.

MULTZOAK:

1. multzoa: **ATHLETIC CLUB – ALAVES – IF BROMMAPOJKARNA**

2. multzoa: **BASAURIKO SELEKZIOA – REAL SOCIEDAD – CELTA DE VIGO**

EGUTEGIA:

Larunbata, 2023ko ekainak 3

J1

10:00etan	ATHLETIC CLUB – DEPORTIVO ALAVÉS
11:15ean	REAL SOCIEDAD – CELTA DE VIGO
12:30etan	ATHLETIC CLUB – IF BROMMAPOJKARNA

J2

16:30ean	BASAURIKO SELEKZIOA – CELTA DE VIGO
17:45ean	IF BROMMAPOJKARNA – DEPORTIVO ALAVÉS
19:00etan	BASAURIKO SELKZIOA – REAL SOCIEDAD

Igandea, 2023ko ekainak 4

J3

09:45ean	5. eta 6. POSTUAK (1. multzoan 3. postuan geratu den taldea – 2. multzoko 3. taldea)
11:00etan	3. eta 4. POSTUAK (1. multzoko 2. taldea – 2. multzoko 2. taldea)
12:30ean	FINALA (1. multzoko 1. taldea – 2. multzoko 1. taldea)

Jarraian, sari-banaketa

SARIAK:

Talde guztiei oroirgarri bat emango zaie parte hartzeagatik.

Era berean, parte-hartzaile guztiei sariak banatuko dizkiegu, gure babesleei esker.

Honako hauek sarituko dira:

- 6 taldeak.
- Txapelketan gol gehien sartu dituen jokalaria. Bi jokalari edo gehiago berdinduta baldin badaude, gazteenak jasoko du saria.
- Txapelketako jokalaria onena.
- Txapelketako atezain onena.
- Arrazaren saria.
- “Poli Bizkarguenaga” saria entrenatzaile onenari.

Kultura eta kirola bateragarriak direla sinetsita gaudelako, saridunek **JESUS LIZASO** eskultore ospetsuaren brontzezko eskultura bat jasoko dute (www.jesuslizaso.com).

Erreproduzio guztiak berdinak eta zenbakituak izango dira, eta aipatutako eskultorearen Piru Gainza bildumakoak dira.

Sarrera DOAN izango da

OHARRAK:

- Araudi honetan aipatu ez den beste guztiari dagokionez, Euskadiko Futbol Federakundeak honelako txapelketen kasurako xedatutakoari jarraituko diogu.
- Araudi honetan aldaketaren bat eginez gero, taldeen ordezkariak jakinaraziko zaie.
- Batzorde Teknikoaren erabakiak apelaezinak izango dira.